

ELURTEA

Beldurgarrizko gau illun bat zan:
 turmoi ots, aize chistuak,
 odoi tartetik argi egiñaz
 chimista pizkor sutsuak;
 mendi ta borda tontorka ditu
 zuritu elur ostuak
 eta ikaraz bezela daude
 izarrak ezkutatuak.

Baserri baten sukaldechoan
 krisellubaren argira,
 senar emazte zerbait zarchoak
 negarrez ikusten dira;
 mantalen pun̄a eramaten du
 andre tristiak begira,
 iñoiz jiriaz malkotan bere
 senarra zeguen alkira.

Oñutsetan da bere gona motz
 gorriskarakiñ larrera,
 neska sendua ariñ juaten zan
 Munu chikiko aurrera;
 illun aurrian kontentu eta
 kantari beyak biltzera....
 baña gau illun izutiyartan
 etzan ageri echera.

Batetan zuta jarri eta du
 artu kapelu zabala,
 eta eskuan laguntzalletzat
 urritz makilla duala
 andre sarrari laztan estu bat
 eman eta beriala,
 kanporatu da aiton zimela
 gazte sendo bat bezala.

Ariztegiko aldapa gora
 aize, elurra gatikan,
 gizona zuta laister zeguen
 Munu mendiyān, goitikan;
 irrintzi luze batez deitu du
 koajez tontorretikan,
 baña etzuben nor erantzunik
 aize chistuak baizikan.

Berriz irrintziz deitutzen diyo
 zoratu bear zayola,
 baña beizayen arrastorikan
 eztu arkitzen iñola;
 elurra jasa bizi biziyan
 eroritzen zan ¡ta nola!
 illietako zuritasuna
 geyagotutzen ziyola.

Aritz senduak igarotu ta
 bi arkaitz beltzen tartian,
 gauza illun bat andik zaitu du
 arrubi zulo batian;
 bi malko lodi zeriyozkala,
 arkaitz bidea batian,
 an arkitu du zoragarriya
 elurrak erdi gordian.

¡Bere alaba maitatiya zan!
 Neketan gora jasorik,
 eta gaisua ikusirikan
 arkitzen zala bizirik,
 bere kolkoko berotasuna
 biyotz berian josirik,
 baserrichora jiratu ziran
 pena ta pozez beterik.

Asnasa estu larriya eta
 guziz ichura charrian,
 sartu ziraden aita alabak
 beren baserri sarrian;
 andre sar onak belaun igarrak
 fedez jarririk lurrian,
 erregututzen zuben tristiak
 Jaungoikoaren aurrian.

—Zure negarrak eta neriak
 estu samiñak baziran,
 ¡o! andre ona, esan nezake
 guziyak bukatu ziran;
 gure animen musu-laztanak
 nola baltsamuak diran,
 ume atsegiñ zoragarriya
 sendatuko da segiran.

Gau illun artan zorion ura
 zitzayenian agertu,
 guraso sarren biyotzak ¡o! zer
 poza ote zuten artu;
 pechu ayetan eztitasuna
 ainbesteraño zan sartu,
 musu laztanka zoratu nayan
 eziñ ziraden aspertu.

Gero argitu zuben bezela
 pozkiroz egun berriya
 ta ikusirik neška mocharen
 sosegu miragarriya,
 arin jaiki zan eguzkiyare
 zabaldutzero argiya,
 leyatillatik zuzen gelara
 sartuaz bere begiya.

Esker oneko ume leyla
 irteten zana kantari,
 nola biyotzen sentimentuak
 fede biziyan kontari;
 —ziyon—azitzen naizen bezela
 nere guraso zarrari,
 nik pagatuko diyet kontentu
 ugarituaz zor ori.—

.
 Uste gabeko fortuna batez
 Jaungoiko onaren bidez,
 —ziyon—ume on gurasotiyak
 —ez naiz ezeren biarrez;
 baña zeruak naiz oparotu
 ontasan aundi ederrez,
 gurasoakiñ nai det guziya;
 guraso gabe, ezer ez.—

